

Txikien etorkizuna kanpoan ere jokatzeko da

Soziolinguistika Klusterrak II. Jardunaldiak egin zituen otsailaren 20an, Donostian. Hainbat gairen artean, eskola orduz kanpoko euskararen erabileraz aritu ziren. Tarte berezia izan zuen bestalde, teknologia berriek euskarari eskaini diezaioketen aukera sortak.

MALORES ETXEBERRIA

ESKOLAKO HIZKUNTZA-ERABILERAN zein aldagaik eragiten duten ikertzeko Arrue proiektuan jasotako datuen analisiaren berri eman zuen Iñaki Martínez de Lunak, proiektuaren zuzendariak. Análisi horren arabera ikusi da eskolan haur eta gazte- txoek erabiltzen duten hizkuntzan eragina baduela eskolaren hizkuntza-proiektuak eta horren garapenak. Halaber, eskola-esparruan ezagutza mailatik erabilerara dagoen jauziaren inguruan gogoetarako gai interesgarria plazaratu zuen Itziar Elorzak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko kideak.

Elorzak adierazi zuen ez dela egokia alderatzea eskolan haur horiek jasotzen duten ezagutza eta eskolatik kanpo egiten duten erabilerara. Alegia, eskolan gazteek barnerrazten duten hizkera, erregistroa, formala dela, ikasgai eta edukiekin lotua, eta erregistro horretan erabilerara egokia egiten dutela. Baina eskolak, gaur gaurkoz, ez duela hizkera kolokiala, komunikatiboa, lantzen eta, beraz, esparru informalean erabiltzeko beharrezkoak dituzten bitarteko eta estrategiak falta zaizkiela gazteei. Arlo ez formalean erabilerara



Vicent Partalen ustez elebitasunak hizkuntz gutxitua heriotzera darama. Lehia Interneten dago, hizkuntza guztiak bat egiten duten tokian, eta hiztun kopuruari begiratu gabe gune horretan egoteko apustua egin behar da.

areagotu nahi bada eta eskolak horretan zereginik badu –berak baietz uste du–, eskolaren jarduna ezin daiteke %80an entzutera eta idaztera mugatu.

Jardunaldiotako beste gai nagusia teknologia berriak eta hizkuntzak

izan ziren. Vicent Partal Bartzelonako *Vilaweb* komunikabideko zuzendariak oso hitzaldi interesgarria eman zuen, eta esan zuen gaur egun ez dela nahikoa hizkuntza jatorrizko lurraldean normalizatzea, kanpoan ere normalizatu beharra dagoela. Partal

Babeslea: Zumaia Euskara Zerbitzua

 <p>Zumaia Udala www.zumaia.net</p>	<p>Zumaian eta Euskal Herrian</p> 	<p>Foruen enparantza, 1 20750 ZUMAI A Tel.: 943865025 Faxa: 943862456 euskara@zumaiaoudala.net euskaratxanpan@zumaiaoudala.net</p>
---	---	--

Vicent Partal, Iratxe Esnaola eta Gorka Julio euskarri digitalen aukerez

Vicent Partal *Vilaweb* agerkari digital katalanaren sortzailea eta zuzendaria da, Iratxe Esnaola PuntuEus elkarteko kidea eta Gorka Julio informatikaria. Bakoitzak bere hitzaldia eskaini eta gero mahai-inguruan bildu ziren entzuleen galderak erantzuteko. Hona entresaka:

Iragarpenak

Vicent Partal: "Gaur egun eza gutzen dugun telebista amaitzen ari da. Telebista lineala ez da sostengatuko. Etorkizuna kartara egindako telebista da. LTD oraindik ez da hasi eta jada hilik dago. Hemendik aurrera inporta duena da jendeak eta komunikabideek bideo txikiak Internetera igotzea". "Ordenagailuak desagertu egingo dira".

Mundu erreala eta birtuala

Iratxe Esnaola: "Teknologia Berrietan komunikazioa euskaraz ematea premiazkoa da, mundu fisikoan hori islatu dadin".

Gorka Julio: "Interneten ezagututako jende askorekin harremana dut mundu fisikoan, euskaraz; ni

euskarazko Internet munduan murgildu naizelako".

V. Partal: "Okerra da planteatzea bi mundu bereizi daudela, birtuala eta erreala. Gaur egun jendea ez da Internetera konektatzen, Interneten dago".

Tresna informatikoak ingelesetik itzuli beharra

I. Esnaola: "Euskarak ezin du itzulpenaren zain egon, euskarak bere erritmoa du mundu fisikoan eta hala behar du birtualean ere. Hori Microsoften eskutik ezin da lortu, berak ezartzen baitu erritmoa".

V. Partal: "Googlek euskararekin tratu ona izatea lortu behar da. Hori ez da lortzen dirua jarriz, baizik eta Googlen algoritmoetan eraginez".

"Hizkuntz aniztasun egoeran ingelesa arriskutsua izan daiteke,

baina gure kasuan arriskutsuagoak dira frantsesa eta gaztelania. Hor eragin behar dugu lehendabizi. Ez da beharrezkoa guztia itzultzea. Garrantzitsuena da erabakitzea zer itzuli behar den eta zer ez. Garrantzitsuena komunikabideak, kultura eta unibertsitatea norberaren hizkuntzan izatea da".

Tamainak inporta al du? (.eus ekimena hizpide)

I. Esnaola: ".eus ekimenari atxikimendua emateak badu garrantzia, hor atzean komunitate zabal bat dagoela erakusteko".

V. Partal: "Tamainak ez du inporta, interesgarriena sortzea da".

I. Esnaola: "Txikiak izanik ere, beste batzuk baino aktiboagoak gara".

Elisabeth Pombo

katalan hizkuntzaren esperientziatik ari da eta hartatik gomendatzen digu euskaldunoi euskara hizkuntza globalizatzea.

Estu-estuan hartuta, hizkuntza global nagusi bakarra dago gaur egun, ingelesa. Gertatzen da Interneten hizkuntza bakoitzak daukan presentzia ez dagoela automatikoki lotuta hiztun kopuruarekin. Ondorioz, hizkuntza baten erabiltzaileek lortu dezakete berenak Interneten presentzia edukitzea, halako globaltasun bat, hiztun gehiagoko beste hizkuntza batzuek baino handiagoa.

Partalek Interneten presentzia handiena duten lehen 40 hizkuntzak definitzeko erabili du "global" terminoa, eta hizkuntza aniztasunak elebitasunak ez bezalako aukera ematen duela adierazi du. Interneteko lehen

40 hizkuntza horien artean egotea da hizkuntza kanpoan normalizatzea, Partalen iritzian. Behin ranking horretan zaudela, ezaguna zara, existitzen zara. Bitartean ez. Hori lortua

"Interneteko lehen 40 hizkuntzen artean egotea da hizkuntza kanpoan normalizatzea"

Vicent Partal

dute katalanek, eta froga gisa adibide bitxia eman zuen: Hanburgo hiriak duen webgunea katalanez ere bada-goela konturatu zirelarik, horren arrazoiaren bila hasi ziren, eta, zera jakin zuten, webgunea diseinatzeako enpresak agindu bat jaso zuela, ale-

gia, Interneten presentzia handiena zuten lehen 40 hizkuntzetan jartzeko.

Hiztun kopuruz euskararen tamaina antzekoa daukan Estonia aipatu du Partalek, Interneten daukan presentziatik guretat erdigarri izan daitekeelakoan.

Katalunian bezala, Euskal Herrian elebitasunaren inguruan ari gara beti lehian. Elebitasunak gurea bezalako hizkuntza minorizatuak desagertzera daramatzala dio Partalek. Aldiz, Internetek beste hizkuntza guztien artean lehiatzera garamatza eta lehia horretan aukera handiagoak irekitzen zaizkigu, aniztasunak dakartzanak. Hortik aldarrikatzen du komunikatzaile katalanak gurea bezalako hizkuntza txikien etorkizuna hemen bakarrik ez, kanpoan ere jokatzen dela. ■